

2003/2004 formazio plana

Aisialdiko hezkuntza
Gizarte eta kultur dinamizazioa

urtxintxa eskola
GIPUZKOA

Urtxintxa Hezitzaile Eskolak aisialdiko begirale, aisialdiko zuzendari eta gizarte eta kultur dinamizatzaile ikastaroak antolatu ditu. Ikastarook urrian hasi eta maiatzean amaituko dira. Bestalde, begirale ikastaroan azaletik jorratuko diren zenbait gai -hala nola, ludotekoen edota gazte lekuen funtzionamendua- sakonago lantzeko aukera izango da ikastaro trinkoetan. Izena eman nahi duenak 943270033 telefono zenbakira deitu edo Urtxintxa eskolaren egoitzara (Mundaiz bidea 8) joan besterik ez du.

Aisialdiko hezkuntza

Esperientziaren Eskola

Matia Fundazioak Esperientziaren Eskola egitasmoa antolatu du laugarren urtez jarraian. Ekimena 50 urtetik gorako gizon-ema-kumeei zuzenduta dago. Giza-harremanak, komunikaziorako trebetasuna, ariketa fisikoa eta beste hamaika gai jorratuko dituzte. Horrez gain, Añorgako Rezola Museora, Zientziaren Kutxagunera eta Txillida Lekura irteerak egingo dituzte. Eskolak Amara Berriko Ernest Lluch kultur etxean izango dira, urriaren 15etik ekainaren 1era arte: astearte, asteazken eta ostegunetan, 10.00etatik 13.00etara. Izena emateko epea irailaren 30a arte dago zabalik. Argibide gehiago nahi izanez gero, 943224143 telefono zenbakira deitu besterik ez dago.



Liburu Zaharrak Gipuzkoa plazan



Igandean bukatuko da Liburu Zaharren azoka. Gipuzkoa plazan jarri dituzten 40tik gora postuetan liburu zaharrak dira nagusi-XVI. mendeko liburu batzuk salgai daude-, baina euskal talde eta musikariren CD-ak, komikiak eta Donostiako postalak ere eros daitezke. Azoka 11.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 21.00etara dago zabalik.

Bideoz egindako erretratuak



Iraila hasieran, Donostiako Arte Ekinbideak "Kanpoaldearen zinema: erretratuaren izpiritua" bideo proiektio sorta martxan jarri zuen. Pertsonen erretratuak islatzeko, bideoa tresna egokia dela erakutsi nahi dute ekimen honen bitartez.

Hilaren 26an, ostirala, Erreazkzinoa talde feministak koordinatutako lau bideo lan eskainiko dira Arrasate kaleko Kutxa aretoan: Begoña Hernandezen "Relación especial", Saily Gutierrezen "Tell-red", Virginia Villaplanaren "Tras las fronteras del sueño de la inmigración" eta Marta Gonzaloren eta Públío Perezen "Más muertas que vivas". Egileak emanaldiaren aurretik mintzatuko dira. Proiektzioa 19.00etan hasiko da.

datozenak

Urria hasieran bi musika hitzordu garrantzitsu izango ditugu Donostian. Lehenik, urriaren 3an eta 4an, hardcore jaialdia egingo da Altza kultur etxean (Larratxo pasealekua 55), Buenawista Proiektzioen ekimenez. Besteak beste, Ira eta Decessus, Sinergia eta Machetazo taldeek joko dute. Bigarrenik, urriaren 12tik 14ra bitartean, VI. Elektronikaldia izango dugu. Emanaldiak Kur-saalean, Gazteszenan eta Artelekun izango dira. Urtero bezala, nazioarteko musikari entzutsetu asko etorriko dira gurera, tartean DJ Food in-gelesa eta Berlingo Schneider Tm eta Farben. Euskal Herriko musikariei dagokienez, Ibon Errazkin donostiarra eta Josetxo Anitua bilbotarra nabarmen daitezke.